

GAKO EKONOMIKOAK

- Nahiz eta kutsatze berriek jarraitzen duten, tratamenduen eta txertoen inguruko aurrerakuntzek, datu makroekonomikoen hobekuntzek eta Banku Zentralen eta Gobernuen laguntzek baior izatera bultzatzen dute.
- Errenta aldakorrean igoerak izan dira, eta amerikar indizeak errekor berriak lortzen ari dira.
- Tipoen gorakada zor subiranoan eta aktibo arrisksuen joera ona.
- Dolarrak ahul jarraitzen du.

MAKROEKONOMIA ETA MERKATUAK

Ekonomia garatu nagusietan bizi dugun kutsatzen gorakadak, Europan bereziki, Espainia buruan, tokiko komunikabideen goiburuak bete baditu ere, inbertitzaileen sentimenduak hobertantz egiten jarraitu du abuztuaren. Hobekuntza horren katalizatzaileak makro datuen hobekuntza, Banku Zentralen eta Gobernuen laguntzak eta COVID-19ari aurre egiteko txertoen inguruko albiste onak izan dira. Nahiz eta pandemiaren bilakaera kezagarria izaten jarraitzen duen, azken asteotan, sendatutako pertsonen plasma gaixo berriak tratatzeko erabiltzea onartu dela jakin dugu, baita AstraZeneca eta Pfizer txertoetan aurrera pausoak ematen ari direla ere. Arlo makroekonomikoan, nahiz eta Estatu Batuetan kontsumitzaileen konfiantza galeraren ondorioz orain arteko berpizte ekonomiko sendoa moteltzen doala badirudi ere, AEBko BPGn-ren goranzko berrikustek, AEBko enplegu datuen hobekuntzak eta Eurozonaren egonkortasunak (Europar PMlek indarra galdu badute ere) baior izatera bultzatzen zuten. Gainera, FEDak bere estrategian emandako noranzko aldaketa gehitu behar zaio. 41 urteren ondoren, moneta agintariek malgutasuna eman diote % 2ko inflazio xedeari, enpleguari lehenasuna emanaz eta atek ireki mantenduz interes tipoak denbora luzeagoz baxu mantentzeko. Zerga arloan, aldiz, susperragari berri hori ez da guztiz gauzatu. Amerikar gobernuaren negoziatioak hilean zehar eten ziren, nahiz eta zenbatekoaren beherapen batek hurrengo asteetan demokraten eta errepublikanoen arteko adostasuna ekar dezakeela uste den. Europan, Europako Batzordeak 81.400 M€ lagako dizkie hamabost estatu kideri, oso baldintza onekin, haien gobernuak zehaztutako enplegua aldi batez babesteko eskemak finantzatzeko. Azkenik, merkataritza arloan, AEBko eta Txinako merkataritzaren ordezkariak positibotzat ematen zituzten urtarrean sinatutako merkataritza akordioaren 1 fasea barneratzeko emandako pausoak. Gainera konpromisoa hartu baitzuten harremanak sendotzeko lanean jarraitzeko.

ERRENTA ALDAKORRA

Azken udetan burtsaren jarrera ona izan ez bada ere, errenta aldakorreko merkatuek emaitza positiboekin agurtu dute abuztua, Estatu Batuetako burtsak gehienbat. Nasdaq selektibo teknologikoa buruan, % 11,05eko igoerarekin, eta gainerako indizeak % 7tik gora igo direla (Dow Jones +% 7,57 eta S&P +% 7,01), Amerikako burtsak 80ko hamarkadatik izan duen abuzturik onena bizi izan du teknologikoen joera onaren ondorioz. Zoom konpainiak, adibidez, % 40 egin du gorantz, itxaropen guztiak gaintuz bere hiruhileko kontu bikainekin. Bideokonferentzietan oinarritutako negozioa izanik, pandemiarekin kaxa egin ahal izan dute eta urteko ohiko diru-sarrerak laukoiztu dituzte bigarren hiruhile fiskalean. Europan, joera ez da horren deigarria izan, halere positiboa izan da. Eurostoxxa (+% 3,09) Iboxa (+% 1,34) baino hobeto ibili da, eta Dax alemaniarra nabarmenena izan da (+% 5,13). Europatik kanpo, japoniar burtsak % 6,59ko igoera izan zuen. Emergenteen multzoak, aldiz, % 2,09 egin zuen aurrera.

INDIZEA	ESKUALDEA	ORAINGO MAILA	DIBISA	HILEKO ALDAK.	2020ko ALDAK.
IBEX-35	ESPAINIA	6.969,50	EUR	%-3,62	%-27,01
EUROSTOXX-50	EUROPA	3.272,51	EUR	%1,19	%-12,62
S&P-500	AEB	3.500,31	USD	%12,90	%8,34
DOW JONES	AEB	28.430,05	USD	%10,14	%-0,38
NASDAQ 100	AEB	12.110,70	USD	%19,24	%38,68
NIKKEI-225	JAPONIA	23.139,76	JPY	%3,82	%-2,18
EMERG. MSCI	EMERGENTEAK	1.101,50	USD	%10,69	%-1,18
MUNDUKO MSCI	GLOBALA	209,66	EUR	%4,73	%-2,28

Iturria: Bloomberg

ERRENTA FINKOIA

Erreserba Federalaren moneta politika aldaketak Atlantikoaren bi aldeetako epe luzerako bonuen errentagarritasunean igoera nabarmena eragin du. AEBtan, hamar urterako bonuaren errentagarritasuna 18bp hazi zen, % 0,70era arte, eta haren homologo alemaniarra aldiz, 13pb, -% 0,40ekin bukatu arte. 10 urterako Espainiako bonuak bide berbera jarraitu zuen, nahiz eta neurri txikiagoan, eta % 0,41an bukatu zuen 7pb igo ondoren. Horren ondorioz, arrisku prima 6pb estutu zen. Arrisku goseak zor subiranoan salmentak eragin ditu eta erosketak enpresa bonuen arloan egin ziren diferentzialen estutzea eraginez.

INDIZEA	EPEA	ORAINGO MAILA	HILEKO ALDAK.	2020ko ALDAK.
EURIBOR	3 HIL.	-0,48	-0,06	-0,09
	6 HIL.	-0,44	-0,16	-0,12
	12 HIL.	-0,37	-0,16	-0,13
ALEMANIAKO ZOR PUBLIKOIA	2 URTE	-0,65	3,50	-5,10
	5 URTE	-0,63	6,80	-15,60
	10 URTE	-0,40	5,70	-21,20
ESPAINIAKO ZOR PUBLIKOIA	2 URTE	-0,46	-4,80	-7,30
	5 URTE	-0,20	-6,30	-12,50
	10 URTE	0,41	-5,80	-5,90

Iturria: Bloomberg

DIBISAK ETA LEHENGAIK

Dolarrak gainerako moneta garatuekiko balioa galtzen jarraitu zuen, uztailean baino motelago, yena izan ezik, ia aldaketarik izan ez du eta. Arriskuaren aurkako jarrera txikiagoak, FEDak tasa baxuak luzarago mantentzeko eta zerga defizit eta korrontearen konturako defizit sendoek, Amerikako dibisaren kotizazioan eragina izan dute. Lehengai dagokienez, gordina % 3,69 igo da abuztuaren inbentarioen jaitzieraren eta Mexikoko Golkoko petrolio plataforma gehienek Laura urakana dela eta itxi izanaren ondorioz. Azkenik, urreak jaitziera txiki bat izan du, 1.967,80\$/ontzara arte, baina balio handiarekin jarraitzen du.

Euro/Dolar



Iturria: Bloomberg